



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUA
SERVICIO DE ATENCIÓN A PERSONAS CON DISCAPACIDADES

ZEINU HIZKUNTZARA SARRERA IKASTAROKO EMAITZEN TXOSTENA

GIPUZKOAKO CAMPUSA

2015-2016 IKASTURTEA



Txosten honetan **“Zeinu Hizkuntzara Sarrera Ikastaroan”** parte hartu duten ikasleek ebaluazio galdeketa adierazi dituzten emaitzak jasotzen dira. Ikastaroak 1 eta 2. lauhilabeteetan gauzatu dira. Ikastaroen iraupena 25 ordukoa izan da, astean bi egunetan banatua, guztira 16 saio izan dituelarik ikastaro bakoitzak. Ikastaroak Gipuzkoako campusean eman dira, Ignacio M^a Barriola Zentroan (Gelategia). Lehen lauhilabeteko ikastaroa, urriaren 13an hasi eta abenduaren 17an bukatu zen eta bigarren lauhilabetekoan berriz, otsailaren 16an hasi eta apirilaren 21ean bukatu zen.

Ikastaro honen bultzatzailea Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua izan da eta Kulturgunea Gipuzkoako Campuseko Kultur Hedakuntzarekin batera antolatu da ikastaroa. Ikastaroa gorra den irakasle batek eman du, Euskalgorrak, Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioak jarrita.

Ikasleen iritzia jasotzeko, ikastaroa bukatu ondoren galdeketa bidezko prozedura erabili da.

Ikastaroan 43 ikaslek parte hartu dute eta 37 galdeketa jaso dira, partaideen % 86,04 izanik.

Ikastaroa unibertsitateko komunitate osoari zuzenduta dago, baina gehienak ikasleak izan dira. Generoari dagokionez 34 emakume eta 3 gizon izan dira eta adinari dagokionez, 32 partaide 18-25 urte bitartekoak izan dira, 3 partaide 26-35 urte bitartekoak eta 2 partaide 36-50 urte bitartekoak. Ikasleen jatorriari dagokionez, 11 Psikologia Fakultatekoak dira, 10 Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatekoak, 6 Majisteritza Eskolakoak, 3 Zuzenbide Fakultatekoak, 1 Informatika Fakultatekoa, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolakoa 1, eta 3 ikaslek ez dute erantzun jatorriari dagokion galdera.

Ikusten dugunez ikasle gehienak Psikologia eta Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatekoak dira.

Bataz bestekoak puntuazio altuetan kokatzen direla ikus dezakegu, item gehienetan 8,50 inguru kokatuta dago ikasleen asebetetzea. Ondorioz, parte hartu duen ikasleriaren asebetetasuna aztertutako itemetan asebetzea altua dela adierazten da. Azpimarratzeko, puntuazio altuena 9,96 izan da eta irakaslearen itemari dagokio. Puntuaziorik baxuena 7,37 izan da eta ikastaroaren iraupenari dagokio.



Ikastaroaren berri nola izan duten galdera irekian, 23 ikaslek, unibertsitateak eskaintzen dituen baliabideen bidez jakin dutela adierazi dute, hala nola, iragarkiak euskarri desberdinetan, katalogo, liburutegiko iragarki, aukera askeko kredituen informazio liburu eta web orrialdearen bidez izan dute ikastaroari buruzko informazioa. Beste 13 ikasleek, ikastaroaren berri kideen bitartez izan zutela diote.

Iradokizunetarako galdera irekian jaso diren 24 aipamenak, beheko grafikoan biltzen dira.

Hurrengo orriko grafikoetan, txosten honetan jasotako puntuazioak islatzen dira eta azken orrian, jarduera hau gauzatzeko erabilitako galdeketa eredua ikus daiteke.


Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak konpromisoa hartzen du txostenean dagoen informazioarekin ikastaroen eskaintza hobetu ahal izateko.



ZEINU HIZKUNTZARA SARRERA IKASTAROEN EMAITZAK

2015-2016 IKASTURTEA

Galdeketan baloratutako itemen batz besteko puntuazioa 8,90 dela ikus dezakegu hurrengo grafikoan. 1etik 10era bitarteko puntuazioa erabili da, 1 ez nago batere ados eta 10 guztiz ados izanez.



Hurrengo taulan, galdeketan jasotako hobetzeko aipamenak ikus ditzakegu.

HOBETZEKO IRADOKIZUNAK	
<i>Bigarren maila sortzea, ikasten jarraitzeko.</i>	19
<i>Ikastaroko ordutegia egokitu. Arratsaldez bada 15:00etatik aurrera..</i>	5



GALDEKETA EREDUA

EBALUAZIO ORRIA
"Zeinu Hizkuntzara Sarrera Ikastaroa"

Sexua	
G	<input type="checkbox"/>
E	<input type="checkbox"/>

Adina	
18 -25 urte	<input type="checkbox"/>
26 -35 urte	<input type="checkbox"/>
36 -50 urte	<input type="checkbox"/>
51 urte edo gehiago	<input type="checkbox"/>

UPV/EHUko ikasten edo lan egiten duzun zentroa

IKASLEA IIL AZP

GALDERAK ERANTZUTERAKOAN 1etik 10era BITARTEKO PUNTUAZIOA ERABILI

1 = ez nago batere ados10 = guztiz ados

Ikastaroa antolatu den espazioa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Ikastaroaren irakaslea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Ikastaroaren edukia	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Lan dinamika-metodologia	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Jasotako materiala	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Saioen iraupena	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Nik esperotakoa bete du	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Lagun bati gomendatuko nioke ikastaro hau	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Nola izan duzu ikastaro honen berri?

Beste aipamenen bat egin nahi duzu hobetu ahal izateko?

Mila esker zure laguntzagatik!